



# KO NEX IOAK

Goi-mailako Hezkuntza +  
Euskadiko Kultura- eta  
Sormen-Industriak  
**GIZARTE ERRONKEI**  
aurre egiteko

23  
24

Educación Superior +  
Industrias Culturales y  
Creativas de Euskadi  
para abordar  
**DESAFÍOS SOCIALES**

# CO NEX IONES

**ksigune**

**KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK**  
INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak gidatu eta bultzatutako ekimena  
Liderado e impulsado por el Departamento de Educación y el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco



Goi Mailako Hezkuntza + EAEko  
Kultura eta Sormen Industriak  
ERRONKA SOZIALEI EKITEKO

Educación Superior + Industrias  
Culturales y Creativas de Euskadi para  
ABORDAR DESAFÍOS SOCIALES

ksigune

ksigune

Goi Mailako Hezkuntzako ikastetxeen eta EAEko kultura eta sormen sektoreetako eragileen arteko lankidetzan oinarritutako prestakuntza eta transferentzia proiektuak sustatzea eta garatzen laguntzea du helburu KSIgunek.

KSIgune impulsa y ayuda al desarrollo de proyectos de formación y transferencia basados en la cooperación entre centros de Educación Superior y los agentes de los sectores culturales y creativos de Euskadi.

## Zertarako da deialdi hau? ¿Para qué es esta convocatoria?

Deialdi honen helburua da ezagutzaren transferentzia erraztea, EAEko kultura eta sormen sektoreetako erakundeetan aplikatuko diren goi mailako hezkuntzako baterako proiektuak finantzatzuz. Proiektu horiek ekarpen positiboa egin behar dute erronka sektorialetan eta/edo erronka globaletan, trantsizio demografiko, ekologiko eta digitalarekin erlazionatuta.

Finantzaketa izan dezaketen proiektuen formatua:

### Prestakuntzarako konexioa

#### 1. mota

Gradu Amaierako Lana (GRAL), Master Amaierako Lana (MAL) eta Irakasgaiko Lan kolektiboa (IL).

#### 2. mota

Gradu Amaierako Lan kooperatiboa (GRALK), Master Amaierako Lan kooperatiboa (MALK) eta Irakasgaiko Lan kolektibo kooperatiboa (ILK).

### Gauzapena

GRAL eta MAL lanak 2023an hasi beharko dira, eta 2022/2023 edo 2023/2024 ikasturteetan egin. Irakasgaiko Lan kolektiboak 2023/2024 ikasturtean egin beharko dira.

Proiektu mota horietan (1 eta 2), parte hartzen duten irakasleen inplikazio handia behar da, eta ikastetxeak nahitaez aitortu behar du ezagutzaren transferentzia.

La presente convocatoria busca favorecer la transferencia de conocimiento a través de la financiación de proyectos conjuntos de la Educación Superior Vasca con aplicación en Entidades de los Sectores Culturales y Creativos de Euskadi. Estos proyectos han de suponer una contribución positiva para desafíos sectoriales y/o para los retos globales relacionados con la transiciones demográfica, ecológica y digital.

Formato de los proyectos sujetos a financiación:

### Conexión para la formación

#### Tipo 1

Trabajo Fin de Grado (TFG), Trabajo Fin de Máster (TFM) y Trabajo colectivo de Asignatura (TA).

#### Tipo 2

Trabajos Fin de Grado cooperativos (TFGc), Trabajos Fin de Máster cooperativos (TFMc) y Trabajos colectivos de Asignatura cooperativos (TAc).

### Ejecución

Los TFG y TFM deberán comenzar en 2023 y realizarse en el contexto del curso 2022/2023 o 2023/2024. Los Trabajos colectivos de Asignatura deberán realizarse durante el curso 2023/2024.

Estos tipos de proyecto 1 y 2 deberán contar con un alto grado de implicación por parte de las y los docentes participantes en el proyecto, siendo la transferencia de conocimiento reconocida necesariamente por su Centro.

## Eraldaketarako konexioa

### 1. mota

Ikertaldearen Lana.

### 2. mota

Ikertaldearen Lan kooperatiboa.

Ikertaldeen lanak 2023an hasi beharko dira, eta gehienez 6 hilabeteko iraupena izango dute.

Deialdiaren xedean adierazi bezala, finantzatuko diren bi proiektu motek ekarpena egin edo aurrerapena ekarri beharko dute erronka sektorialetan –kultura eta sormen industrietako sektore bati edo gehiagori eragiten dieten erronkak– eta/edo erronka globaletan, trantsizio demografiko, ekologiko eta digitalarekin erlazionatuta, betiere kultura eta sormen industrien ikuspegitik.

## Conexión para la transformación

### Tipo 1

Trabajo de Grupo de Investigación.

### Tipo 2

Trabajo/s cooperativos de Grupos de Investigación.

Los Trabajos de grupos de investigación deberán comenzar en 2023 y tener una duración máxima de 6 meses.

Como se indica en el objeto de la convocatoria, los dos tipos de proyectos objeto de financiación deberán suponer una contribución o avance relativo a los desafíos sectoriales -aque- llos retos que afecten a uno o más sectores de las Industrias Creativas y Culturales, y/o a los retos globales relacionados con la transiciones demográfica, ecológica y digital, siempre desde una perspectiva de las ICC.

## Zer dira...

### Kultura eta sormen industriak?

EAEan, kultura industriak dira arte eszenikoak, ikusizko arteak, liburua eta prentsa, kultura ondarea, ikus-entzunezkoak eta multimedia eta musika, eta sormen industriak dira publizitatea, arkitektura, artisautza, bideojokoak, sormenezko gastronomia, diseinua, moda eta hizkuntzaren industriak.

### Erronka sektorialak?

Kultura eta sormen industrietako sektore bati edo gehiagori eragiten dieten erronkak dira.

### Erronka globalak?

Aldaketa demografikoek eta sozialek, klima aldaketak eta iraultza teknologiko-digitalak planteatutako erronkak dira. Erronka horiek eraginda, trantsizioak gertatzen ari dira maila globalen, eta ezinbestekoak dira esku-hartze eraldatzaileak, askotariko begiradak, eta abor datze irekiak baina bereziak, baita testuinguru lokalean eta kulturatik eta sormenetik abiatuta ere.

## De qué hablamos cuando hablamos de...

### Industrias Culturales y Creativas

Están integradas, en el caso de Euskadi, por las Artes escénicas, Artes visuales, Libro y Prensa, Patrimonio cultural, Audiovisual y multimedia y Música, en el caso de las Culturales, y Publicidad, Arquitectura, Artesanía, Videojuegos, Gastronomía Creativa, Diseño, Moda e Industrias de la lengua, en el lado de las Creativas.

### Desafíos sectoriales

Son aquellos retos que afecten a uno o más sectores de las Industrias Creativas y Culturales.

### Retos globales

Planteados por los cambios demográficos y sociales, el cambio climático y la revolución tecnológico-digital, las cuales están provocando transiciones a nivel global que exigen intervenciones transformadoras, miradas diversas, abordajes abiertos pero singulares también en el contexto de lo local y desde la Cultura y la Creatividad.

---

Hemen daude aurreko edizioetako proiektuak:

<https://www.ksigune.eus/eu/konexioak>



Puedes encontrar los proyectos de ediciones anteriores en:

<https://www.ksigune.eus/es/programa-conexion>



## Norentzat da deialdia? ¿A quién va dirigida?

Deialdia da **EAEko kultura eta sormen industrietan sartuta dauden enpresa eta bestelako erakundeetarako** (elkarteak, fundazioak edo gizarte zibileko beste edozein erakunde, pertsona fisikoen edo juridikoen taldeak). Partaidetza publikoa izanez gero, % 50etik beherakoa izan behar du, deialdian parte hartu ahal izateko.

KSIgunen bazkide laguntzaile gisa sartutako ikastetxe bat behar da gutxienez.

Erakunde eskatzailea kultura eta sormen industrien sektoreko erakundea izango da, eta proiektua koordinatzeaz arduratuko da.

Aurkeztutako ekimeneko bazkide bakoitzean, proiektuko arduradun bat egongo da.

Horrez gain, beste eragile akademiko edo enpresarial batzuk atxiki ahal izango dira hirugarren bazkide gisa, kultura eta sormen sektoreetakoak izan ala ez, EAEkoak izan ala ez. Lehentasuna emango zaie Akitania Berriko eta Nafarroako hirugarren bazkideei, Euroeskualdearen testuinguruko lankidetzan ibilbide luzea egin duten lurraldeak baitira horiek. Erakunde eskatzailea eta haren bazkide akademiko nagusia EAEkoak izango dira beti.

### Taldeak osatzea

KSigunek aholkularitza emango die erakundeek, baldin eta erronka bat identifikatu eta proiektu ideia bat izan arren, ez badute Goi Mailako Hezkuntzaren eremuko bazkiderik.

La convocatoria se dirige a **empresas y otras entidades** (Asociaciones, fundaciones o cualquier otra organización de la sociedad civil; Agrupaciones de personas físicas o jurídicas) **integradas en las Industrias Culturales y Creativas de Euskadi** (si cuenta con participación pública, esta deberá ser inferior al 50% para poder tomar parte en la convocatoria).

Se requiere al menos un centro de educación integrado en KSIgune como socio colaborador.

La entidad solicitante deberá ser una entidad del sector de las Industrias Culturales y Creativas y será la responsable de la coordinación del proyecto.

Habrará un responsable de proyecto por cada uno de los socios de la iniciativa presentada.

Adicionalmente, podrán adherirse como terceros socios otros agentes académicos o empresariales, pertenecientes o no a los sectores culturales y creativos, de Euskadi o de fuera de Euskadi, priorizando a terceros socios de Nueva Aquitania y Navarra, territorios con larga trayectoria de cooperación en el contexto de la Euroregión. La Entidad solicitante y su socio académico principal serán, en todo caso, de Euskadi.

### Formación de los equipos

Desde KSIgune, se asesorará a las entidades que, a pesar de haber identificado un reto y tener una idea de proyecto, no tengan un socio del ámbito de la Educación Superior.

## Deialdiko baliabideak

### Recursos de la convocatoria

Deialdiaren zenbateko osoa **90.000 euro** da.

Deialdi honen esparruan proiektuei emandako finantzazioa aurkeztutako aurrekontu osorako edo horren ehuneko baterako izango da, proiektuak lortutako puntuazioaren arabera, eta betiere, gutxienez puntuazioa gaituz gero (informazio gehiago **Balorazio irizpideak** atalean). Ekarpen hori erabil daiteke proiektua gauzatzeko gastuak ordaintzeko: langileak, materiala, argitalpenak, dietak eta joan-etorriak.

Hona hemen proiektuek jaso ditzaketen gehieneko ekarpenak:

#### Prestakuntzarako konexioa

##### 1. mota

Gratu Amaierako Lana (GRAL), Master Amaierako Lana (MAL) eta Irakasgaiko Lan kolektiboa (IL): gehienez **4.000 euro**.

##### 2. mota

Gratu Amaierako Lan kooperatiboa (GRALK), Master Amaierako Lan kooperatiboa (MALK) eta Irakasgaiko Lan kolektibo kooperatiboa (ILk): gehienez **6.000 euro**.

#### Eraldaketarako konexioa

##### 1. mota

Ikertaldearen Lana: gehienez **12.000 euro**.

La cuantía económica total de la convocatoria asciende a **90.000 euros**.

La financiación concedida a los proyectos en el marco de esta convocatoria responderá al total del presupuesto presentado o a un porcentaje de este, según la puntuación obtenida por el proyecto y siempre habiendo superado la puntuación mínima (información ampliada en el apartado de **Criterios de valoración**). Esta aportación podrá destinarse a cubrir los gastos necesarios para llevar a cabo el proyecto: personal, material, publicaciones, dietas y desplazamiento.

La aportación máxima que podrá asignarse a los proyectos es:

#### Conexión para la formación

##### Tipo 1

Trabajo Fin de Grado (TFG), Trabajo Fin de Máster (TFM) y Trabajo colectivo de Asignatura (TA): hasta **4,000 euros**.

##### Tipo 2

Trabajos Fin de Grado cooperativos (TFGc), Trabajos Fin de Máster cooperativos (TFMc) y Trabajos colectivos de Asignatura cooperativos (TAc): hasta **6,000 euros**.

#### Conexión para la transformación

##### Tipo 1

Trabajo de Grupo de Investigación: hasta **12,000 euros**.

## 2. mota

Ikertaldearen Lan kooperatiboa: gehienez **18.000 euro**, ikertaldeak hezkuntza erakunde berekoak badira, eta gehienez **20.000 euro**, bi hezkuntza erakundetakoak edo gehiagotakoak badira.

Prestakuntza beketarako, **38.000 euro**ko finantzazioa egongo da guztira.

Eraldaketa beketarako, **52.000 euro**ko finantzazioa egongo da guztira.

Agortu ahala itxiko dira finantzaketa lerro horiek. Lerro bateko finantzaketa erabat esleitu gabe geratzen bada, beste lerroko proiektuak finantzatzeko banatu ahal izango da gelditu den zenbatekoa.

**Erakunde bakoitzak gehienez 2 proiektu** aurkeztu ditzake, eta gehienez **20.000 euro**ko finantzaketa izango du erakunde eskatzaile bakoitzak. Ordainketa hilabeteko epean egingo da, hitzarmena sinatzen denetik hasita.

Erakunde eskatzaileak (proiektua bertan aplikatuko da) banatuko du aurrekontua, eta bera arduratuko da proiektua justifikatzeko dokumentazioa aurkezteaz ere.

Kostu egokitzat joko dira proiektuaren garapean eragin zuzena dutenak. Aurrekontu banakatua aurkeztu behar da, eta justifikatu, eskatzen den gainerako dokumentazioarekin batera, proiektua amaitu ondoren. **Gune+** (<https://gunedigital.eus/>) plataforman dago justifikazio hori egiteko behar den informazio guztia.

## Tipo 2

Trabajo/s cooperativos de Grupos de Investigación: hasta **18,000 euros** si los grupos de investigación pertenecen a la misma institución educativa; y hasta **20,000 euros** si pertenecen a dos o más instituciones educativas diferentes.

La financiación total dedicada a las becas de formación es de **38,000 euros**.

La financiación total dedicada a las becas de transformación es de **52,000 euros**.

Estas líneas de financiación se cerrarán a medida que vayan agotándose. Si la financiación de una línea quedase sin asignar completamente, podrá distribuirse tal cantidad para financiar proyectos de la otra línea.

Se podrán presentar un **máximo de 2 proyectos por entidad** y la financiación no excederá los **20,000 euros** por entidad solicitante en total. El pago se realizará en el plazo de un mes desde la firma del convenio.

La entidad solicitante (entidad de aplicación del proyecto) será la encargada de distribuir el presupuesto, así como de presentar la documentación requerida para la justificación del proyecto.

Se considerarán costes aptos aquellos que redunden en el desarrollo del proyecto de forma directa. Se presentará un presupuesto desglosado que deberá ser justificado, junto con otra documentación requerida, tras la finalización acordada del proyecto. En la plataforma **Gune+** (<https://gunedigital.eus/>) se podrá encontrar toda la información necesaria para dicha justificación.

**Proiektua aplikatzen duen erakundea** (eskatzailea) arduratuko da proiektuaren koordinazioaz, eta gehienez aurrekontuaren % 20 esleituko da horretarako.

**Bazkide akademikoari** dagokionez, aurrekontuko partidek orekatuta egon beharko dute, eta ikasleen eta irakasleen lana errekonozitzeko esleitu behar dira, prestakuntza beka eskatzen duten proiektuen kasuan.

Proiektuan ez da gainfinantzaketarik onartuko. Proiektuaren aurrekontua eskatutako laguntza baino handiagoa bada, zehaztu beharko da zer zati ordainduko diren deialdi honen bidez. Komeni da beste laguntza ekonomiko batzuk izatea, baldin eta eskatutako aurrekontuan aitortzen badira.

Erakunde onuradunak eta **Euskampus Fundazioak KSIguneren erakunde kudeatzaile gisa** hitzarmena sinatu ondorengo data izan beharko dute aurkeztutako faktura guztiek. Proiektuari esleitutako finantzaketa onartu ondoren sinatuko dute hitzarmena.

Egindako gastuak aurrekontuan jasotakoak baino txikiagoak badira, aurrez jasotako zenbatekoak itzultzeko eska dezake **KSIgunek**.

Proiektuan zeinahi desbideratze dagoela ere, **KSIguner**i jakinarazi eta justifikatu behar zaio, proiektua gauzatzeko epea amaitu baino lehen. Behin aldaketak justifikatuta, **KSIgunek** onartu egin beharko ditu, eta kasu horretan, litekeena da emandako laguntza aldatzea.

Puntu honetan aipatutako erakunde onuradunek ez badituzte betetzen haien erantzukizunak, finantzatutako zenbatekoak itzultzeko eska dezake **KSIgunek**. Gainera, erakunde onuradunak ezingo du KSIguneren deialdi honetan edo beste edozeinetan parte hartu datozen bi urteetan.

**La coordinación del proyecto**, a cargo de la entidad de aplicación del proyecto (solicitante), tendrá asignado un máximo del 20% del presupuesto.

En cuanto al **socio académico**, el presupuesto deberá obligatoriamente tener partidas equilibradas presupuestariamente asignadas al reconocimiento directo de la labor de los estudiantes y los docentes en el caso de proyectos que se acojan a las becas de formación.

El proyecto no podrá incurrir en sobrefinanciación. Si el presupuesto del proyecto supera la ayuda solicitada, deberá especificarse qué partes serán cubiertas a partir de esta convocatoria. Será deseable contar con otros apoyos económicos siempre que estos sean declarados en el presupuesto solicitado.

Todas las facturas presentadas deberán tener una fecha posterior a la firma del convenio que se realizará entre la entidad beneficiaria y **Euskampus Fundazioa como entidad gestora de KSIgune** tras la aprobación de la financiación asignada al proyecto.

Si los gastos realizados fueran inferiores a los presupuestados inicialmente, podrá solicitarse por parte de **KSIgune** el reintegro de las cantidades previamente percibidas.

Cualquier desviación en el proyecto debe ser notificada y justificada a **KSIgune** antes de la finalización del plazo de ejecución del mismo. Una vez justificadas, desde KSIgune se deben aceptar las modificaciones notificadas, pudiendo dar lugar a una variación en la ayuda concedida.

En caso de incumplimiento en las responsabilidades de las entidades beneficiarias citadas en este punto, **KSIgune** podrá solicitar la devolución de las cuantías financiadas. Además, dicha entidad beneficiaria no podrá participar en esta ni ninguna otra convocatoria de **KSIgune** durante los próximos dos años.

## Nola egin behar da eskaera? ¿Cómo se solicita?

**Gune+** (<https://gunedigital.eus/>) plataforma digitalaren bidez aurkeztu behar dira eskaerak.

Proiektuaren arduradunak erregistratu egin beharko du, Gune+ komunitate digitaleko kide ez bada dagoeneko. Beharrezkotzat jotzen duen guztietan sar daiteke tresnan, eskatutako informazio guztia bete eta proiektuaren memoria, kronograma eta aurrekontua igotzeko. Era berean, proiektuko gainerako parte-hartzaileak gonbida ditzake, atal horretan parte hartzera.

Proiektua behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango zaie parte hartzen duten erakundeei.

Las solicitudes deberán ser presentadas a través de la plataforma digital **Gune+** (<https://gunedigital.eus/>).

La persona responsable del proyecto deberá registrarse, en caso de no formar parte ya de la comunidad digital Gune+, y acceder cuantas veces considere necesario a la herramienta para cumplimentar toda la información requerida y subirse la memoria del proyecto, el cronograma y el presupuesto. Asimismo, podrá invitar al resto de participantes en el proyecto a participar en este apartado.

Se podrá requerir a las entidades participantes cuanta documentación y/o información complementaria se considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación del proyecto.



## Eskaeraren balorazioa

### Valoración de solicitudes

Diziplina anitzeko batzorde batek ebaluatuko ditu aurkeztutako proiektuak, bermatzeko proiektuen kalitatea eta garrantzia, eta ziurtatzeko sektorean aktibo dauden proiektuen lehia ez direla. EAEz kanpoko bi kide izango ditu ebaluazio batzordeak: bata, Goi Mailako Hezkuntzaren ordezkaria, eta bestea, kultura eta sormen industriaren ordezkaria. Beren lana egiteko zeharkako ezagutzak izan behar dituzte bi-biek. Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak eta Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak onartu beharko dituzte balorazioak.

Aurrerago azalduko diren irizpideen arabera, gehienez 100 puntu lortu daitezke. Ebaluaziotik baztertuta geratuko dira, eta laguntza hauek jasotzeko aukerarik gabe, honako hauek:

- Deialdiaren xedearekin bat ez datozen proiektu guztiak.
- Proiektuaren berrikuntza mailari buruzko atalean 20 puntu gainditzen ez dituzten proiektu guztiak, eta guztira gutxienez 65 puntu lortzen ez dituztenak, artikuluko honetan ezarritako balorazio baremoaren arabera. 1. eranskinean (Balorazio irizpideen banaketa) ikus daiteke puntuaren banaketa.

Los proyectos presentados serán evaluados por un comité multidisciplinar que garantice la calidad y relevancia de los proyectos, así como su no competencia con proyectos activos en el sector. El comité estará compuesto por dos personas de fuera de Euskadi: una figura representante de la Educación Superior y una de las ICC, ambos con los conocimientos transversales necesarios para llevar a cabo su labor. Las valoraciones deberán ser aprobadas en última instancia por las Direcciones de Promoción de la Cultura y Política y Coordinación Universitaria.

En función de los criterios presentados a continuación, la valoración total máxima que se podrá alcanzar es de 100 puntos. Quedarán descartados para la evaluación y no podrán ser beneficiarios de estas ayudas:

- Todos aquellos proyectos que no respondan al objeto de la convocatoria.
- Todos aquellos proyectos que en el apartado relativo al grado de innovación del proyecto no superen los 20 puntos y que no obtengan al menos 65 puntos en la puntuación total de acuerdo al baremo de valoración establecido en este artículo. En el Anexo 2 Desglose de criterios de valoración puede verse el reparto específico de puntos.



## Balorazio irizpideak

## Criterios de valoración

### Proiektuaren berrikuntza maila

40 puntu

Baloratuko dira proiektuaren izaera berritzailea, dagokion diziplinan edo diziplinetan egiten duen balio ekarpena, eta eskalatzeko eta kopiatzeko moduko metodologiaren eta prototipoen diseinua. Positiboki baloratuko da ere proposamena oinarritzeko hausnarketan "inpaktu" aldagaia sartzea.

### Proiektuaren izaera estrategikoa

20 puntu

Positiboki baloratuko da proiektua erakundeko berrikuntza estrategia batean integratuta edo halako estrategia bati lotuta egotea. Era berean, baloratuko da proiektuak izan dezakeen inpaktua eremu teknologiko-digitalean, energetiko-ingurumenekoan eta/edo demografiko-sozialean, erronka sozialei erantzuten dieten proiektuak direnean, edo proiektuak izan dezakeen inpaktua kultura eta sormen sektoreetan, sektore horietako erronkei erantzuten dieten proiektuak direnean.

### Hibridazioa eta lankidetzak

17 puntu

Positiboki baloratuko da lankidetzak hainbat sektoreren artean sustatzea, berrikuntzak balio diferentzial handiagoa izatea ahalbidetzeko. Era berean, baloratuko da eragileen arteko lankidetzak, ez bakarrik elkarrekin egindako lan gisa, baita irtenbide berritzaile gisa ere alde guztien helburuekin lerrokatuta, lankidetzak eraginkorra izatea lortzeko arau argi batzuk ezarrita.

### Grado de innovación del proyecto

40 puntos

Se valorará el carácter novedoso del proyecto y su aportación de valor dentro de la disciplina o disciplinas en las que se enmarque, el diseño de metodologías y prototipos con potencial escalable y replicable. La introducción de la variable "impacto" en la reflexión que sustenta la propuesta también se considerará positivamente.

### Carácter estratégico del proyecto

20 puntos

Se valorará positivamente que el proyecto esté integrado o vinculado a una estrategia de innovación de la entidad. Asimismo, la valoración tendrá en cuenta el potencial impacto del proyecto en los ámbitos tecnológico-digital, energético-medioambiental y/o demográfico-social, en el caso de proyectos que respondan a retos sociales, o su potencial impacto en los sectores culturales y creativos en aquellos proyectos que respondan a retos de dichos sectores.

### Hibridación y colaboración

17 puntos

Se valorará positivamente que la colaboración se promueva entre distintos sectores, de manera que permita innovar con mayor valor diferencial. Asimismo, se valorará la colaboración entre agentes, no sólo entendida como trabajo de forma conjunta, sino como una solución innovadora alineada con los objetivos de todas las partes implicadas, estableciendo unas reglas claras para conseguir una colaboración eficaz.

**Proiektuaren deskribapen teknikoa**

15 puntu

Plangintza, metodologia eta aurrekontu koherenteak. Baloratuko da amaierako eta bitarteko ebaluazio adierazleak egotea. Baloratuko da proiektuaren emaitzak zabaltzeko proposamen bat egotea.

**Euskararen erabilera**

4 puntu

Baloratuko da proiektuan euskararen erabilera txertatzea.

**Genero-berdintasun printzipioa txertatzea**

4 puntu

Genero-berdintasun printzipioaren integrazio maila baloratuko da.

**Descripción técnica del proyecto**

15 puntos

Planificación, metodología y presupuesto coherentes. Inclusión de indicadores de evaluación final e intermedia. Se valorará que el proyecto incluya una propuesta de difusión de resultados.

**Uso del Euskera**

4 puntos

Incorporación del uso del euskera al proyecto.

**Integración del principio de igualdad de género**

4 puntos

Grado de integración del principio de igualdad de género.

## Data garrantzitsuak Fechas importantes

### Eskaera

Deialdia zabalik egongo da argitaratzen denetik **2023ko urriaren 27ra arte**, edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak helburu horretarako jarritako dirua agortu arte.

Proiektuak gaztelaniaz edo euskaraz aurkeztu daitezke.

Proiektuetan parte hartzen dutenek Euskampus Fundazioaren laguntza estrategikoa eta teknikoa izango dute.

Saio birtualak edo presentzialak egingo dira, eta **Gune+** (<https://gunedigital.eus/>) plataforma birtualerako sarbidea emango da.

### Erabakia

Prozedura ebazteko eta erabakia interesdunei jakinarazteko gehieneko epea **2 hilabete da, aurkeztu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Laguntza onartu ondoren**, lankidetzaz hitzarmena sinatuko da erakunde eskatzailearekin, eta esleitutako finantzaketaren % 60 transferituko da.

KSIguneren barneko eta zabalkunde publikoko kanalen bidez zabalduko dira emaitzak.

### Solicitud

La convocatoria se mantendrá abierta desde la fecha de su publicación hasta el **27 de octubre de 2023**, o hasta agotar la cuantía económica dedicada por los Departamentos de Educación y Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco a este propósito.

Los proyectos podrán presentarse en castellano o euskera.

Los participantes en los proyectos contarán con el apoyo estratégico y técnico de Euskampus Fundazioa.

Se realizarán sesiones virtuales o presenciales y se facilitará el acceso a la plataforma virtual **Gune+** (<https://gunedigital.eus/>).

### Resolución

El plazo máximo para resolver el procedimiento y notificar lo resuelto a los interesados será de **2 meses a contar desde el día siguiente a su presentación**. Tras la aceptación de la ayuda, se procederá a la formalización de un convenio de colaboración con la entidad solicitante y la transferencia del 60 % de la financiación concedida.

Los resultados serán difundidos desde los diferentes canales internos y de difusión pública con los que KSIgune cuenta.



## Justifikazioa

Proiektua koordinatzen duen erakundeak hilabete izango du proiektua justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko, **Gune+** (<https://gunedigital.eus/>) plataformaren bidez. Proiektua amaitzen den egunetik (eskaeran emandako informazioaren arabera) hasiko da zenbatzen epe hori. Justifikazio horretaz gain, proiektuaren garapenaren berri eman beharko da 2023ko abenduaren 15a baino lehen, plataforma berean dagoen formulario estandarizatuaren bidez. Baldintza hori betetzen ez bada, emateko dagoen finantzaketa zatia kenduko da; hau da, proiektuaren aurrekontu osoaren % 40ari dagokiona.

Proiektua entregatu egin beharko da. Lanaren azken formatuagatik entregatu ezin bada, egingdako proiektuaren txostena aurkeztu beharko da. Lana ez da publiko egingo, baina aldeetako batek hala nahi balu, berariaz adostuko da.

## Justificación

La entidad coordinadora del proyecto contará con un mes a partir de la conclusión del proyecto (según información aportada en la solicitud) para presentar la documentación relativa a la justificación del mismo a través de la plataforma **Gune+** (<https://gunedigital.eus/>). Además de la justificación, deberá informarse del desarrollo del proyecto antes del 15 de diciembre de 2023 a través del formulario estandarizado que se encuentra en la misma plataforma. El incumplimiento de este requisito será motivo para la retirada de la financiación restante correspondiente al 40% del presupuesto total del proyecto.

El proyecto realizado deberá ser entregado o, si no fuese posible por el formato último del trabajo, un informe del proyecto realizado. El trabajo no se hará público y, en caso de que exista este interés por alguna de las partes, se acordará expresamente.



**ERANS  
KINAK**

**ANE  
XOS**

# 1. ERANSKINA: Balorazio irizpideen banakatzea

## ANEXO 1 | Desglose de criterios de valoración

### Proiektuaren berrikuntza maila 40 puntu

#### Proiektuaren izaera berritzailea bere ingurune espezifikoan (15 puntu)

- 11-15 puntu. Proiektu oso berritzailea bere ingurune espezifikoan.
- 6-10 puntu. Proiektu berritzaile samarra bere ingurune espezifikoan.
- 1-5 puntu. Proiektu ez oso berritzailea bere ingurune espezifikoan.
- 0 puntu. Berrikuntza maila nuluko proiektua.

#### Balio ekarpena (15 puntu). Berrikuntza lotzen da desberdintasuna eta balio instrumentala, intrintsekoa edo soziala sortzearekin.

- 11-15 puntu. Balio eta erabilgarritasun ekarpen handiko proiektua.
- 6-10 puntu. Balio eta erabilgarritasun ekarpen ertaineko proiektua.
- 1-5 puntu. Balio eta erabilgarritasun ekarpen txikiko proiektua.
- 0 puntu. Balio eta erabilgarritasun ekarpenik gabeko proiektua.

### Grado de innovación del proyecto 40 puntos

#### Carácter novedoso del proyecto en su entorno específico (15 puntos)

- Entre 11-15 puntos. Proyectos altamente novedosos en su entorno específico.
- Entre 6-10 puntos. Proyectos moderadamente novedosos en su entorno específico.
- Entre 1-5 puntos. Proyectos bajamente novedosos en su entorno específico.
- 0 puntos. Proyectos con nulo grado de innovación.

#### Aportación de valor (15 puntos). Se vincula la innovación con el aporte de diferenciación y valor instrumental, intrínseco o social.

- Entre 11-15 puntos. Proyectos con una elevada aportación de valor y utilidad.
- Entre 6-10 puntos. Proyectos con un nivel medio de aportación de valor y utilidad.
- Entre 1-5 puntos. Proyectos con una baja aportación de valor y utilidad.
- 0 puntos. Proyectos con una nula aportación de valor y utilidad.



**Aplikazioa sektoreetan (10 puntu).** Proiektua erreplikagarria eta/edo transferigarria da balio duenean bestelako testuinguru batean antzeko ekimenak garatzeko erreferentzia eredu gisa, arrakasta izateko aukerarekin.

- 6-10 puntu. Proiektuak erreplikagarritasun eta/edo transferigarritasun handia du.
- 1-5 puntu. Proiektuak erreplikagarritasun eta/edo transferigarritasun txikia du.

### **Proiektuaren izaera estrategikoa 20 puntu**

**Enpresan I+G+b estrategiarekin lerrokatzea  
(12 puntu)**

- 9-12 puntu. Enpresaren I+G+b estrategian erabat integratuta dagoen proiektua.
- 5-8 puntu. Enpresaren I+G+b strategiari partzialki lotuta dagoen proiektua.
- 1-4 puntu. Enpresaren I+G+b strategiarekin lotura txikia edo nulua duen proiektua.

**Balizko inpaktua EAEko hiru trantsizioetako batean / Balizko inpaktua EAEko kultura eta sormen sektoreetan (8 puntu)**

- 6-8 puntu. Hiru trantsizioetako batean inpaktu handia duen proiektua / Bi sektoreetako batean inpaktu handia duen proiektua.
- 3-5 puntu. Hiru trantsizioetako batean inpaktu ertaina duen proiektua / Bi sektoreetako batean inpaktu ertaina duen proiektua.

**Aplicación a los sectores (10 puntos).** El proyecto es replicable y/o transferible cuando sirve de modelo de referencia para desarrollar iniciativas similares en un contexto distinto al de su creación con probabilidades de éxito.

- Entre 6-10 puntos. El proyecto posee replicabilidad y/o transferibilidad alta.
- Entre 1-5 puntos. El proyecto posee replicabilidad y/o transferibilidad baja.

### **Carácter estratégico del proyecto 20 puntos**

**Alineación con la estrategia de I+D+i en la empresa (12 puntos)**

- Entre 9-12 puntos. Proyectos totalmente integrados en la estrategia I+D+i de la empresa.
- Entre 5-8 puntos. Proyectos parcialmente vinculados a la estrategia I+D+i de la empresa.
- Entre 1-4 puntos. Proyectos poco o nada vinculados a la estrategia I+D+i de la empresa.

**Potencial impacto en alguna de las tres transiciones de Euskadi / Potencial impacto en los sectores culturales y creativos de Euskadi (8 puntos)**

- Entre 6-8 puntos. Proyectos que tienen un impacto elevado en alguna de las tres transiciones / Proyectos que tienen un impacto elevado en alguno de los sectores.
- Entre 3-5 puntos. Proyectos que tienen un impacto medio en alguna de las tres transiciones / Proyectos que tienen un impacto medio en alguno de los sectores.

- 1-2 puntu. Hiru trantsizioetako batean inpaktu txikia duen proiektua / Bi sektoreetako batean inpaktu txikia duen proiektua.

### **Hibridazioa eta lankidetzaz** **17 puntu**

- Lankidetzaz maila, aurkeztutako erantzukizunen eta lankidetzaz mekanismoen banaketaren arabera (4 puntu).
- Erakunde eskatzailea: enpresa (2 puntu).
- Erakunde laguntzaileen kopurua eta lankidetzaz potentziala (4 puntu).
- Proiektuaren zati bat edo proiektu osoa presentzialki garatzea kultura/sormen sektoreetako erakundeetan (4 puntu).
- Diziplinartekotasuna, sektoreen eta/edo diziplinen arteko lankidetzaz (3 puntu).
- 

### **Proiektuaren deskribapen teknikoa** **15 puntu**

- **Plangintza:** lan metodologia argia eta definitua, definizio metodologikoa eta kronograma (4 puntu).
- **Ebaluazioa:** ebaluazio jarraituko adierazleak (prozesuaren jarraipena) eta espero diren emaitzen xehetasuna (4 puntu).
- **Aurrekontu xehatua:** egituraren koherentzia. Hala badagokio, finantzaketa eredia eta jarraipen proposamena (4 puntu).
- **Zabalkundea:** komunikazio eta zabalkunde proposamen egokia proiektuaren arabera, zabalkunde elebiduna eta inklusiboa (3 puntu).

- iii. Entre 1-2 puntos. Proyectos que tienen un impacto bajo en alguna de las tres transiciones / Proyectos que tienen un impacto bajo en alguno de los sectores.

### **Hibridación y colaboración** **17 puntos**

- Grado de colaboración en base al reparto de responsabilidades y mecanismos de colaboración presentados (4 puntos).
- Tipo de entidad solicitante: empresa (2 puntos).
- Número de entidades colaboradoras y potencial de la colaboración (4 puntos).
- Desarrollo de la una parte o de la totalidad del proyecto presencialmente en la entidad cultural/creativa (4 puntos).
- Interdisciplinariedad, cooperación entre sectores y/o disciplinas diversas (3 puntos).

### **Descripción técnica del proyecto** **15 puntos**

- **Planificación:** Metodología de trabajo clara y definida, definición metodológica y cronograma (4 puntos).
- **Evaluación:** Indicadores de evaluación continuada (seguimiento de proceso) y detalle de resultados esperados (4 puntos).
- **Presupuesto detallado:** Coherencia en la estructura. En su caso, modelo de financiación y propuesta de continuidad (4 puntos).
- **Difusión:** Propuesta de comunicación y difusión adecuada al proyecto, difusión bilingüe e inclusiva (3 puntos).

**Euskararen erabilera**  
**4 puntu**

- 3-4 puntu. Euskararen erabilera txertatuta dago proiektuaren jardueretan eta/edo edukietan, eta bermatuta dago proiektua sustatzeko eta komunikatzeko jardueretan euskara erabiltzea.
- 1-2 puntu. Bermatuta dago proiektua sustatzeko eta komunikatzeko jardueretan euskara modu orekatuan erabiltzea.

**Genero-berdintasun printzipioa txertatzea**  
**4 puntu**

- 3-4 puntu. Genero ikuspegia txertatuta dago proiektuaren diseinuan, hedapenean eta/edo ebaluazioan.
- 1-2 puntu. Bermatuta dago proiektuan emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izatea.

**Uso del euskera**  
**4 puntos**

- Entre 3-4 puntos. Incorpora el uso del euskera en el desarrollo de actividades y/o contenidos del proyecto y garantiza el uso del euskera en las actividades de promoción y comunicación del mismo.
- Entre 1-2 puntos. Garantiza un uso equilibrado del euskera en las actividades de promoción y comunicación del proyecto.

**Integración del principio de igualdad de género**  
**4 puntos**

- Entre 3-4 puntos. Incorpora la perspectiva de género en el diseño, despliegue y/o evaluación del proyecto.
- Entre 1-2 puntos. Garantiza una participación equilibrada de mujeres y hombres en el proyecto.

## 2. ERANSKINA: Gune+ eskatutako datuak eskaera tramitatzeke

### ANEXO 2 Referencia de los datos requeridos a través de Gune+ para tramitar la solicitud

| <b>ESKAERA</b><br><b>LANTALDEARI BURUZKO INFORMAZIOA</b>  | <b>SOLICITUD</b><br><b>INFORMACIÓN DEL EQUIPO DE TRABAJO</b>   |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Enpresa edo erakundea (Izena, IFK/forma juridikoa eta helbidea) (Testu erantzuna).</li><li>- Proiektuaren gauzapenaren eta jarraipenaren arduraduna (Izen-abizenak, NANA, kargua, rola proiektuan, helbide elektronikoa eta telefonoa) (Testu erantzuna).</li><li>- Erakundeko edo enpresako pertsonak lantaldean (Izen-abizenak, kargua, rola proiektuan eta helbide elektronikoa) (Testu erantzuna).</li><li>- KSIgunekeo ikastetxe laguntzailea (Izena, IFK/forma juridikoa eta helbidea) (Testu erantzuna).</li><li>- KSIgunekeo pertsonak lantaldean (Izen-abizenak, kargua, rola proiektuan eta helbide elektronikoa) (Testu erantzuna).</li><li>- Aipatutako pertsona guztien Gune+ plataformako profilerako esteka (Testu erantzuna).</li><li>- Beste eragile bazkide batzuk (Testu erantzuna).</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>- Enpresa o entidad (añadir Nombre, CIF/Forma jurídica y dirección) (Respuesta de texto).</li><li>- Persona responsable de la ejecución y seguimiento del proyecto (añadir Nombre y Apellidos, DNI, Cargo, Rol en el proyecto, correo electrónico y teléfono) (Respuesta de texto).</li><li>- Personas de la entidad o empresa en el equipo de Trabajo (añadir Nombre y Apellidos, Cargo, Rol en el proyecto y correo electrónico) (Respuesta de texto).</li><li>- Centro KSIgunekeo colaborador (añadir Nombre, CIF/Forma jurídica y Dirección) (Respuesta de texto).</li><li>- Personas del Centro KSIgunekeo en el equipo de trabajo (añadir Nombre y Apellidos, Cargo, Rol en el proyecto y correo electrónico) (Respuesta de texto).</li><li>- Link al perfil de Gune+ de todas las personas mencionadas (Respuesta de texto).</li><li>- Otros agentes socios (Respuesta de texto).</li></ul> |



**ESKAERA**  
**PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA**

- Proiektuaren izena (Testu erantzuna).
- Proposamenari dagokion kultura eta/edo sormen sektorea (Testu erantzuna).
- Proiektuari dago(z)kion erronka sozial globala(k) edo sektoriala(k) (\*Deialdiaren I. eranskina kontsultatu daiteke, erreferentzia gisa) (Testu erantzuna).
- Proiektuaren deskribapen laburra (Gehienez 100 hitz) (Testu erantzuna).
- Proposatutako formatua (GRAL, MAL, Irakasgaiko lana, Ikerketa proiektua) (Testu erantzuna).
- Proiektua zer gradu/master/ikertaldetan garatuko den (Testu erantzuna).
- Gradu/master/ikertaldearen orrialderako esteka (Webgune bat estekatu).
- Tartean sartutako ikasleen kopurua (Testu erantzuna).
- Proiektuaren hasiera data (uuuu/hh/ee) (Testu erantzuna).
- Proiektuaren amaiera data (uuuu/hh/ee) (Testu erantzuna).
- Proiektua non garatuko den (Testu erantzuna).
- Proiektuaren memoria (\*\*Deialdiaren I. eranskina kontsultatu daiteke, erreferentzia gisa) (Fitxategi bat igo).
- Aurrekontua (Artxibo bat igo).
- Kronograma (Fitxategi bat igo).

**SOLICITUD**  
**INFORMACIÓN DEL PROYECTO**

- Título del proyecto (Respuesta de texto).
- Sector Cultural y/o creativo en el que se enmarca la propuesta (Respuesta de texto).
- Desafío(s) social(es) global(es) o sectorial(es) en el/los que se enmarca el proyecto (\*Puedes consultar el Anexo I de la convocatoria como referencia) (Respuesta de texto).
- Breve descripción del proyecto (máx. 100 palabras) (Respuesta de texto).
- Formato propuesto (TFG, TFM, Asignatura, Proyecto de Investigación) (Respuesta de texto).
- Título del Grado(s)/Máster(es)/Grupo(s) de investigación en el que será desarrollado el proyecto (Respuesta de texto).
- Link a la página del Grado/Máster/Grupo de investigación (Enlazar una web).
- Nº de estudiantes implicados (Respuesta de texto).
- Fecha inicio del proyecto (dd/mm/aaaa) (Respuesta de texto).
- Fecha fin del proyecto (dd/mm/aaaa) (Respuesta de texto).
- Lugar de desarrollo del proyecto (Respuesta de texto).
- Memoria del proyecto ( \*\*Puedes consultar el Anexo I de la convocatoria como guía) (Subir un archivo).
- Presupuesto (Subir un archivo).
- Cronograma (Subir un archivo).

**BITARTEKO JUSTIFIKAZIO TXOSTENA**

- Bitarteko memoria (Fitxategi bat igo).
- Kronograma (Irismen maila erlatiboa adierazi, %tan) (Fitxategi bat igo).
- Justifikazio ekonomikoa (Unera artekoa) (Fitxategi bat igo).

**AMAIERAKO JUSTIFIKAZIO TXOSTENA**

- Hezkuntza lankidetzako hitzarmena edo kontratua (Artxibo bat igo).
- Tartean sartutako ikasleen kopurua (Testu erantzuna).
- Amaierako memoria (Fitxategi bat igo).
- Justifikazio ekonomikoa (Artxibo bat igo).
- Irudien karpeta.
- Bideoa (Webgune bat estekatu).
- Balorazio inkesta (Fitxategi bat igo).
- GRAL/MAL/Irakasgaiko lana bada, ikasleek lana gainditu dutela egiaztatzen duen agiria (Fitxategi bat igo).

**INFORME DE JUSTIFICACIÓN INTERMEDIO**

- Memoria intermedia (Subir un archivo).
- Cronograma (indicando el grado de alcance en términos relativos %) (Subir un archivo).
- Justificación económica (hasta la fecha) (Subir un archivo).

**INFORME DE JUSTIFICACIÓN FINAL**

- Convenio de cooperación educativa o contrato (Subir un archivo).
- Nº de estudiantes implicados (Respuesta de texto).
- Memoria final (Subir un archivo).
- Justificación económica (Subir un archivo).
- Carpeta de imágenes
- Vídeo (Enlazar una web).
- Encuesta de valoración (Subir un archivo).
- En caso de que se trate de un TFG/TFM/A-signatura, documento acreditativo de que el /la/los estudiante/s han aprobado el trabajo (Subir un archivo).

# KO NEX IOAK

Goi-mailako Hezkuntza +  
Euskadiko Kultura- eta  
Sormen-Industriak  
**GIZARTE ERRONKEI**  
aurre egiteko

23  
24

Educación Superior +  
Industrias Culturales y  
Creativas de Euskadi  
para abordar  
**DESAFÍOS SOCIALES**

# CO NEX IONES

**ksigune**

**KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK**  
INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak gidatu eta bultzatutako ekimena  
Liderado e impulsado por el Departamento de Educación y el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco